Nola egingo duzue zuen produktua/zerbitzua bezeroengana iristeko?

1. Komunikazio Kanalak :
   -Sare Sozialak (TikTok, Instagram): Aterkiaren zentrifugazio bidezko lehortze azkarraren (3 segundo) bideo ikusgarriak eta laburrak zabaltzeko, produktuaren berrikuntza teknologikoa era adierazgarrian erakutsiz.
   -Webgunea eta Lineako Publizitatea: Produktuaren funtzionamendua zehatz mehatz azaltzeko eta sustapen-kanpainak bideratzeko.
2. Salmenta Kanalak:
   -Online Denda Propioa: Bezeroei zuzeneko erosketa ahalbidetzeko.
   -Denda Fisikoak eta Supermerkatuak: Aterkiak inpultsozko erosketa direnez eta 9,99 €-ko prezio lehiakorra dutenez, saltoki handietan, bazarretan eta aterki-dendetan salgai jartzea.
3. Banaketa Kanalak:
   -Mezularitza eta Garraio Enpresak: Lineako erosketen kasuan, produktua zuzenean bezeroaren etxera edo bilketa-puntuetara helarazteko.
   -Banaketa Logistiko Handia: Denda fisiko zein supermerkatuei hornidura bermatuko dien logistika-sarea.